



Hiztegitxoa


Hobeto irakurtzen laguntzeko




agudo azkar	« Agudo asko joan zitzaizkidan ene azken asteak eta egunak Londresen, ohartu gabe kasik.»	167
ahal ... ! desioa adierazteko (ojalá)	«...Jainkoak gordeko ahal du bere arima gureak gordetzea nahi duzun modura!»	50
ahuspez ahoz behera	«Emakumea ahuspez zegoen...»	51
aldika noizean behin	«Baina aldika aurki zenezakeen bertan eskoziar, egiptoar bat, indiar edo txinatar bat...»	44
anabasa nahasketa	«...inurritegia zirudien anabasa hark.»	175
apaindu txukundu	«Arratsaldeko 19:00etarako iritsi zen apopilo zegoen etxera eta pittin bat apaindu ondoren kaleratu zen bertakoei esanez...»	73
apopilo ostatu hartuta dagoena	«Arratsaldeko 19:00etarako iritsi zen apopilo zegoen etxera eta pittin bat apaindu ondoren kaleratu zen bertakoei esanez...»	73
arras zeharo, guztiz	«Baina gure nagusiak alde egiten zuen bezain agudo hasten zen astapotro hura edan eta edan, eta laster batean arras horditzen zen.»	32
arta ardura	«Eskerrak izeba Eloisak hartu zuen anaiaren arta bere gain.»	8
astapotro basatia, boldroa	«Baina gure nagusiak alde egiten zuen bezain agudo hasten zen astapotro hura edan eta edan, eta laster batean arras horditzen zen.»	32
asturu patua, destinoa	«... asturuak halaxe agintzen bazuen.»	168
atondu prestatu	«...Lech Gorria, horrek nirea baino fardel txikiagoa atondu baitzuen.»	25
baikor positiboa	« Baikorra izan naiz beti, garai hartan orain baino gehiago...»	7
behazun zapore mingotseko gibel-likidoa	« Behazuna ahotik joan zitzaidan ia.»	9
bekatari errudun, kulpadun	«Denok gara eta izan gara bekatari handiak...»	50
bermatu ziurtatu, segurtatu	«Hildakoaren lepo inguruan painelu bat zegoen Phillips doktoreak gorpua aztertu zuenean eta bermatu zuen lotuta zeukala eztarria moztu ziotenean.»	60
biak ala biak biak hain zuzen ere	«...esplikatu ziolarik monarkia eta masoien ohorea (biak ala biak goi mailako masoiak baitziren) arrisku larrian zegoela...»	98
boneta txapela	«...hau da, antzeko jaka bat eta antzeko marinelen boneta buruan.»	77
bortizki gogor	«...beste eszena batek eman zidan atentzioa bortizki , eta hortxe hasi nintzen...»	177
builatsu istilutsua, zaratatsua	«Berehalaxe ohartu nintzen jatetxea baino gehiago taberna zela leku ospel eta builatsu hura.»	27
burutik arras deseginda zeharo zoratuta, burutik eginda	«...atso hura burutik arras deseginda zegoela, bere onetik zeharo joanda.»	27
deitoragarri penagarria, zorigaiztokoa	«...eta horrela jausi zen Whitechapeleko auzo deitoragarria emagalduen ofizioarekin konplizera.»	45
desio izan gura izan, nahi izan	«Azkenean, entzun behar izan nuen albisterik txarrena, inoiz desio ez baina inoiz gerta zitekeena.»	127
diligentzia zalguardia	«Bi bikote zetozen gurekin batera diligentzia hartan Virginiantz.»	200
emagaldu prostituta	«Emakume bat izan zen asesinatua gau hartan, Martha Tabram deitzen zen emagaldua .»	29



erauzi atera, arrankatu	«...erraiak moztu eta kanporatzen dituenen, erritu masonikoetan egiten den moduan egiten omen dik: umetokia osorik erauzi , giltzurrun bat kendu...»	81
erritu zeremonia arautua	«Hiltzaileak prostituta horien tripak eta erraiak moztu eta kanporatzen dituenen, erritu masonikoetan egiten den moduan egiten omen dik...»	81
erruki etxe miserikordia etxea, behartsuentzat	«Annie Chapman ezaguna zen erruki etxe horretan eta bertako jendeak ezagutzen zuen.»	57
eskerga haundia, erraldoia	«Ameriketara eramán behar ninduen trasatlantiko eskerga hura.»	168
esnetu hazia bota, eiakulatu	«...ohartu baino lehen berehalaxe esnetu nintzen. Hazi bero lirdingatsua paineluan geratu zen.»	47
espantagarri beldugarri	«Sarraski espantagarri haiek gertatu eta oso egun gutxira Londreseko egunkari guztiek jakitera eman zuten Jack Destripatzailearen azken gutuna.»	119
etzango ohea	« Etzango batzuk zeuden ilaran jarrita, tapaki batzuekin: haietako bat izango zen nire ohea handik aurrera.»	19
ezaupide ezagutza, informazioa	«Horregatik zabaldu zen hilketa hura egin zuena medikua izan zitekeen susmoa, edota medikua izan gabe, medikuntza ezaupideak zeuzkan pertsona	60
eztabaida diskusioa	«...debatean bertan sortzen ziren eztabaidetan beti azaltzen zen hitz bera: zergatik?»	151
fardel paketea	«...maleta eta fardelik gabe geratu nintzela.»	9
formol alkohol moduko disoluzioa	«Bertan zenbait utero aurkitu zituzten formolez betetako ontzietan kontserbatuta.»	0
gajo gaixoa	«Prostituzioara dedikatzen zen Mary Jane gajoa bazala eta lagun handiak izan ziren.»	153
galdeketa itaunketa, interrogatorioa	«...gero eta jende gehiago eramaten zuten atxilotuta aurzoko polizia etxea galdeketak egiteko.»	62
geroztik ordutik hona, harrezkero	« Geroztik ez dut ikusi.»	201
gonbitalarri botaka egiteko gogo handia	«Behin, inoiz baino ron gehiago edan zuelako seguruenik, gonbitalarria sartu zitzaion eta edariak zerbitzatzeko batta atzetik korrika atera...»	32
gonbitoka botaka, oka egiten	«Nik gonbitoka eman nuen itsasaldi osoa eta ia ez nuen lorik ere egin, hain bainengoen zorabiatuta.»	9
gorpu hilotza	«Mary Kellyren gorpua botata zegoen ohe gainean, burua leihoarantz jiratuta zeukalarik.»	145
hits zurbila, bizitasunik gabea, tristea	«Argi hits eta laru batek erdi itzalpetan uzten zuen tabernaren zati handi bat.»	28
horditu mozkortu	«Baina gure nagusiak alde egiten zuen bezain agudo hasten zen astapotro hura edan eta edan, eta laster batean arras horditzen zen.»	32
igorri bidali	«Berriz ere Jack Destripatzaileak igorria zen eta Whitechapeleko Zaintza Komiteko presidenteari, George Lusk jaunari zegoen zuzenduta.»	66
irrikatzen egon desio bizia eduki	« <i>Gustukoa dut nire lana eta irrikatzen nago berriz ere lanean hasteko, laster izango duzu nire berri ostera ere...</i> »	64
iskanbila istilua, astrapala, buila	«Batzuetan, ordea, istiluak eta iskanbilak gure artean sortzen ziren eta hori zela gauza benetan tristea.»	40
izatera izanez gero	«Nik neuk, ostatu hura nirea izatera , Zazpi Mundu izendatuko bainuke...»	43
izurrite epidemia, gaixotasun hedatua	«...baina tifus izurrite gaiztoak eramán zituen betiko.»	7
kamain ohea	«Gauetan, ganbaran etzanda nengoela ene kamainan ...»	22



karel itsasontzien alboetako goiko ertz	« Kareletik barrura sartu nintzenean nire maleta eta fardela ez zeuden jada han.»	10
kausitu aurkitu, idoro, topatu	«Itsasontzian gindoazela maiz ikusten genuen, baina orain behar nuenean ezin nuen kausitu .»	198
krudel ankerra	«...bitartean hainbeste hilketa krudel gertatu zelarik, frogaturik geratu zen bera ezin zela izan Jack Destripatzailea.»	121
lardaskatu narrastu, aldrebestua	«Bere begiak guztiz zabalik zeuzkan, arropa guztia lardaskatua .»	52
laru horia (kolorea)	«Argi hits eta laru batek erdi itzalpetan uzten zuen tabernaren zati handi bat.»	28
lazgarri beldurgarria, izugarria	«Bazirudien polizia ere nahiko galduta zebilela, ez zekielarik zer egin, nora jo, ezin zuelako krimen lazgarri haien hiltzailea (edo hiltzaileak) aurkitu.»	61
legegizon abokatu	«Bera abokatu izanda horixe zen bere nahia, neu ere legegizon izan nendin egun batean berari laguntzeko.»	8
legoa bide neurri zaharra	«...eraman ninduen berarekin legoa batzuetan aurrerantz...»	12
lekaio oinezko morroi	« Lekaioarekin eta guztiz zalgurdi dotore batean zihoan dama eder batek...»	12
lirdingatsu likitsua, itsaskorra	«...ohartu baino lehen berehalaxe esnetu nintzen. Hazi bero lirdingatsua paineluan geratu zen.»	47
lumatu lumak kendu	«Berrero erretiratu nintzen baratzer a hateak lumatzera eta beste langileak ere beren eginkizunetara joan ziren.»	24
maiz sarritan, askotan	«Itsasontzian gindoazela maiz ikusten genuen, baina orain behar nuenean ezin nuen kausitu.»	198
makabro asmo beldurgarria	«Eta horrela asmatu omen zuen Gull zirujauak konspirazio hura mozteko ideia ezin makabroagoa ...»	98
malapartatu madarikatua	«...Thomas malapartatu hura sufritzen zegoela, lurrean botata, halako kolpe eta palakada sorta jasoz.»	40
mehatxu amenazatu	«...Swason poliziaren arrebari aizto batez mehatxu egin ziolako.»	155
miatu ikertu, aztertu	«...bertan zeuden bezeroei eta guri langileoi galderak egitera, eta leku hura goitik behera miatu zuten.»	50
neurastenikoa gaixotasuna: nekea, konzentrazioerik	«Jakin zen, baita ere, berak aurkeztu zuela bere burua Whitechapeleko ospitale hartan ingresa zezaten, neurastenikoa balitz bezala... Zergatik?»	70
olana lona	«...gizon potolo hura ikusi nuen bakarrik eserita zegoela olanazko etzaleku batean.»	181
oldartu oldarrean abiatu	«Gau hartan berehala oldartu zitzaion jendea, bestela txikituko zuen Thomas tabernaria palatzar harekin...»	40
ospel eguzkiak jotzen ez duen eremua	«Berehalaxe ohartu nintzen jatetxea baino gehiago taberna zela leku ospel eta builatsu hura.»	27
ostera ere berriz ere	«...eta abesten segitzen omen zuen ostera ere etxeratu zenean goizaldeko ordu bata inguru izango zenean.»	130
ostera ere berrito, beste behin ere	« <i>Gustukoa dut nire lana eta irrikatzen nago berriz ere lanean hasteko, laster izango duzu nire berri ostera ere...</i> »	64
otzan mantsoa	«...pare bat gurgipen gainean jarrita eta zaldi otzan batek ahal zuen moduan arrastaka zeramana.»	26
pittin bat apur bat	«Arratsaldeko 19:00etarako iritsi zen apopilo zegoen etxera eta pittin bat apaindu ondoren kaleratu zen bertakoei esanez...»	73
popa itsasontziaren atzeko parte	«Han geunden jolasean, eta eskuaz beste aldera seinalatu zuen, poparantz .»	179



profanatu sekratua den zerbait mespretxatu	«...batik bat batzuetan erritual horietan gurutzea profanatzen zuenean.»	69
pusketa zattia	«—Bai. Nahi al duzu? —eta gazta pusketa luztu nion besterik gabe.»	188
sarraski hilkuntza, masakrea	« Sarraski espantagarri haiek gertatu eta oso egun gutxira Londreseko egunkari guztiek jakitera eman zuten Jack Destripatzailearen azken gutuna.»	119
simaur gorotza, animalien kaka	«Horrelako simaurra hasi zen botatzen.»	207
sosegu lasaitasuna	«...kubiertara igotzen nintzenean hartzen nuen sosegu pittin bat.»	181
suertatu gertatu	«Gainera, batzuek demostratu zuten gutxienez bi hilketa suertatu ziren egunetan Clarence dukea ez zegoela Londresen...»	170
sufritu jasan, pairatu	«Gauza jakina zen (...) dukeak ezegonkortasun emozional handia sufritzen zuela.»	93
suizidatu bere buruaz beste egin	«Beste urte batean suizidatu izan balitz, beste hilabete batean suizidatu izan balitz, inork ez zukeen esango bera zela krimen haien guztien erruduna.»	173
tankera itxura, antza	«—Baina aurrena, jan ezak zerbait, gose tankera daukak eta.»	20
tapaki ohe estalkia, burusia	«Etzango batzuk zeuden ilaran jarrita, tapaki batzuekin...»	19
taxuz behar bezala, egoki	«...berarekin lana ondo eta taxuz egin nuelako saritxo hori eman nahi zidala.»	163
tente zutik	«Nire aurrean jarri zen tente , nire begira tinko, eta zaunkaka hasi zen.»	187
tifus gaixotasun kutsakor hilgarria	«...baina tifus izurrite gaiztoak eraman zituen betiko.»	7
tinko sendo, gogor	«—Eta zer daukagu hemen? —atera zitzaion Julietteri ene zakil handitu hura eskuarekin tinko estutu zidanean.»	193
tiradera kaxoia	«...botila bat atera zuen tiraderatik eta tragozka luzea eman zion berriro aulkian eseri ondoren.»	24
txintzarri harri txikitxoak, bidekoak	«Orduan pasatu zen gure aurretik zerbitzari bat txintzarria astinduz.»	0
txortan egin larrua jo, amodioa egin	«...zeharo mozkortuta zegoela kontatzen zienean Mary Ann Nichols eraman zuela kalezulo batera eta koroa erdi bat eskaini ziola txortan egiteko .»	121
umetoki matrizea, erraia	«...erraiak moztu eta kanporatzen dituenean, erritu masonikoetan egiten den moduan egiten omen dik: umetokia osorik erauzi, giltzurrun bat kendu...»	81
urtezahar urteko azken eguna	«1888ko urtezahar eguna ere itsasoaren erdian eman behar izan genuen.»	0
xuxurlatu ahapeka esan, isilean	«Orduan Aldagte aldetik zetorren gizon batek sorbaldan ukitu zuen Mary Kelly eta zerbait xuxurlatu zion belarrira.»	134
zakil arren organu sexuala	«—Eta zer daukagu hemen? —atera zitzaion Julietteri ene zakil handitu hura eskuarekin tinko estutu zidanean.»	193
zalapartaka zaratotsean	«...ume mordoia ere bazebilen korrika jendearen artean bere oihuekin eta builarekin kubiarta guztia zalapartan jarritz.»	178
zantartu itsusitua	«Galtzek beheraka egin zuten indarraren eraginez eta segidan bere esku beteak ene zakil zantartua biltzen zuen, beroki, goxo.»	47
zaratots burrumba, astrapala	«Tabernan, beti bezala, betiko zaratotsa zegoen, jende mordoia, mozkorrak, prostitutak, poliziak...»	164
zatar itsusia	«Auzo zatarra benetan, iluna zikina, jendez gainezka aurkitzen zena...»	26